

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko urtarrilaren 06tik 12rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/01/08

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko abenduaren 25koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita eraikuntza-sektoreko VII. Hitzarmen Kolektibo Orokorra aldatzeko akordioa. **426 xedapena – 22 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko abenduaren 25koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita desgaitasunen bat dutenei arreta emateko zentroen eta zerbitzuen XV. Hitzarmen Kolektibo Orokorren akordio partziala alderdi ekonomikoari dagokionez. **427 xedapena – 10 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/01/10

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** 2019-2026 urteetarako Gipuzkoako Eraikin eta Lokalen Garbikuntzaren hitzarmen kolektiboa. **9587 xedapena – 35 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/01/06

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Ministerio-aginduen numerazioa.** Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 5koa, Idazkariordetzarena, Ministro Kontseiluaren 2001eko abenduaren 21eko Akordioaren eranskina aldatzen duena. Akordio horrek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren ministro-aginduen numerazioa xedatzen du. **343 xedapena – 2 or.**

2024/01/08

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** 1133/2023 Errege Dekretua, abenduaren 19koa, gobernuarteko nazioarteko erakundeetan lan egindako aldien zenbaketa arautzen duena Gizarte Segurantzako sistema kontributiboko pentsio jakin batzuk aitortzearen eta kalkulatzaren ondorioetarako. **391 xedapena – 9 or.**

2024/01/10

- **GOBERNU-LEHENDAKARITZA. Antolamendua.** 1/2024 Errege Dekretua, urtarrilaren 9koa, Gobernu Batzorde Delegatuak ezartzen dituen. **519 xedapena – 7 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** 2024ko urtarrilaren 4ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, Gizarte Segurantzaren nahitaezko diru-bilketarako zenbait unitateren lurralde-eremua aldatzen duen 2023ko abenduaren 18ko Ebazpeneko akatsak zuzentzekoa. **521 xedapena – 1 or.**
- **TRANSFORMAZIO DIGITALERAKO ETA FUNTZIO PUBLIKORAKO MINISTERIOA Antolamendua.** 3/2024 Errege Dekretua, urtarrilaren 9koa, ministerioetako idazkariordetzak berregituratzen dituen. **526 xedapena – 3 or.**

2021/01/11

- **OGASUN MINISTERIOA Katastroko informazioa.** Ebazpena, 2023ko abenduaren 19koa, Katastroko Zuzendaritza Nagusiarena, herritarrak katastro-informazioko puntuetan bideokonferentzia bidez artatzeko zerbitzua onestekoa eta 2019ko urtarrilaren 15eko Ebazpena aldatzekoa. **631 xedapena – 4 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA Ondasun Higiezin gainerako Zerga.** Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 8koa, Katastroko Zuzendaritza Nagusiarena, 2014ko martxoaren 12ko Ebazpena aldatzen duena. 2014ko ebazpen horrek onesten ditu katastro-eroldako fitxategia eta Ondasun Higiezin gainerako Zerga kudeatzeko behar den gainerako informazioa trukatzeko fitxategiak bidaltzeko modua eta haien egitura, edukia eta formatu informatikoa. **632 xedapena – 4 or.**

2024/01/12

- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuak emana, abenduaren 19ko 7/2023 Errege Lege Dekretua indargabetzeko Akordioa argitaratzea agintzen duena. Errege lege-dekretu horren bidez, presako neurriak hartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1158 (EB) Direktibaren transposizioa osatzeko — gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta bizitza profesionala bateragarri egiteari buruzkoa da, eta 2010/18/EB Direktiba indargabetzen du— eta langabezia-babesaren laguntza-maila sinpletzeko eta hobetzeko. **664 xedapena – 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuak emana, abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko Akordioa argitaratzen duena. Errege lege-dekretu horrek justiziaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten ditu. **665 xedapena – 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuak emana, abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko Akordioa argitaratzen duena. Errege lege-dekretu horrek Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen ditu. **666 xedapena – 1 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/01/11

- **OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA.** ERABAKIA, 2023ko abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluarena, 2024ko ekitaldian zehar zerbitzu sanitarioengatik eta irakaskuntzako zerbitzuengatik ordaindu beharra duten hirugarrenei kobratuko zaizkien tarifak onartzen dituena. **117e xedapena – 3 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2024/01/10

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA).** 224/2024 Foru Agindua, abenduaren 29koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren bulegoak irekitzeko ordutegia eta horiek ixteko egunak 2024rako. **0014E xedapena - 2 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/01/08

- **GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA.** 57/2023 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 10/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Etika Institutuzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituen. **9692 xedapena - 8 or.**

2024/01/12

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 2/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 412/2014 Foru Agindua, uztailaren 7koa, zergapekoen erroldan alta hartzeko eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko 030 aitorten eredu onesten duena. **0119 xedapena - 10 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 4/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 240/2019 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, sozietateen gaineko zergan ezarritako 20R eredu onesten duena. **0171 xedapena - 12 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAIO, 26 - BILBAO